



COVID 19 Koronabirusa: Prebentzioan sakontzeko deialdia

Andoingo Udalak, Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak neurri zehatzak luzatu dituzte lasaitasunerako mezua zabaltzearekin batera / 2-3

Aldaketak Kirolddegiko erabiltzaileentzat


Urrietako kiroldegi berria eraikitzeko lanak hasi dira eta hainbat egunez erabiltzaileentzat ez da zerbitzurik eskainiko, modulu aurrefabrikatuak egokitu arte. / 16



Txalo ugari jaso dituen ekimena, Andoingo eta Urrietako kadete mailakoen eskutik / 9



Martxoaren 8an elkarretaratzea egin zuten Urrietan, eta manifestazioa Andoainen / 5, 7



Egunean Behin lehiaketako "Aiurri" taldean 300 lagunetik gora parte hartzen ari dira / 4



Martxoak

8

Atal berezia
Aiurri.eus webgunean

www.aiurri.eus





**ARNASA HARTZEKO
EDO SUKARRA IZANEZ
GERO, ETXEAN EGON
ETA OSASUN
ZENTRORA DEITU**

**OSASUN ETXERA
JOAN AURRETIK
DEITZEA KOMENI DA:
943 00 66 70 ANDOAIN
900 20 30 50 URNIETA**

**ESKUAK URAREKIN
ETA XABOIAREKIN
MAITZASUNEZ
GARBITZEA BEHAR
BEHARREZKOA DA**

**JENDE PILAKETAK
SAIHESTEKO AHOLKUA
LUZATU DUTE,
BATEZ ERE ADINEKO
JENDEAREN KASUAN**

"Kutsaduren gehiengoa sintomak agertu ostean ematen dira"

MIREN BASARAS EHU-KO MIKROBIOLOGIAKO IRAKASLEA

Koronabirusaren gaineko informazio zehatza eman dio GOIENARI. Haren esanetan, inkubazio epean, kutsadura ia ez da gertatzen, "baina inoiz ezin da %100 ziurtatu"

Eneko Azurmendi GOIENA
Ze birus mota da?

Birus familia bat da, eta familia horretan hainbat birus daude. Mikroskopioan ikusita, koroa baten itxura dauka, eta horregatik du izen hori. Familia horretako birus batzuek, lauzpabostek, gizakiak bakarrik kutsatzen dituzte, eta urtero hotzeriaren eragileak dira gurean. Beste batzuek animaliak kutsatzen dituzte eta animaliaz animalia transmititzen dira. Edozein animalia izan daiteke: saguzarrak, untxiak, ahateak, hegazti ezberdinak, eta abar. Beste batzuk, azkenik, gai izan dira animalietatik gizakietara pasatzeko. Hiru dira. Batetik, SARS delakoa, 2002an agertu zena. MERS delakoa, 2012an agertu zena, eta aurtengo hau, SARS CoV-2. Honen Covid-19 gaixotasuna eragiten du.

Zein animalietatik pasatu da gizakira?

Hipotesi ezberdinak daude. Uste da saguzarretan gordetzen dela birus hau, eta hurrengo galdera da saguzarretik nola pasatu den gizakira. Hori ere aztertzen ari dira. Foku edo iturburu garrantzitsuena Txinako animalien merkatu batean izan zen; beraz, hango animaliak aztertzen hasi ziren. Suge batzuk aipatu zituzten, pangolino deituriko animalia bat ere bai, baina ez dago argi bitartekari hori ze animalia izan den.

Birus berria da, ezezaguna.

Gizakian detektatzen den lehen aldia, eta horregatik dago kezka nabarmena. Berria den guztiari



Miren Basaras mikrobiologian aditua da. GOIENA

errespetu bat izan behar zaio. Ez dakigu zein izango den birus honen jarrera, nola garatuko den.

Zeintzuk dira sintoma horiek?

Eztula, sukarra, arnas ezintasuna eta, batzuetan, eztarriko mina ere bai. Horiek dira arinak diren sintomak, eta pertsonak berez sendatzen dira kasu gehienetan. Hala ere, kasu gutxi batzuetan, %14an edo, sintoma horiek konplikatu egiten dira eta pneumonia agertzen da. Pneumonia hori pertsona batzuetan kaltetu egiten da, %14 horietatik %5ean. Kasu horietan, arnas ezintasun hori geroz eta handiago bilakatzen da, beste

organo batzuk kaltetzen ditu eta, azkenean, pertsona hori hil ere egin daiteke

Tratamendua ze egoeratan dago?

Berria denez, ez dago birus horren aurkako inolako tratamendu espezifikorik. Jadanik ditugunak probatzen ari dira. Kasu batzuetan, ondo edo erdi ondo funtzionatu dute, baina ez dira aproposenak. Beraz, beste batzuk bilatzen ari dira.

Hala ere, luze joko du. Lehenengo, laborategian aztertu behar da; gero, animalietara eraman; animalietatik gizakira; eta gero konfirmatu behar da benetan seguruak eta eraginkorrak direla.

Egokia da koronabirusa gripe arruntaren konparatzea?

Konparatu daiteke erdipurdi. Biak arnas-bidetik transmititzen dira, eta sintoma amankomun batzuk dituzte, sukarra, arnas ezintasuna edota ondoeza, baina koronabirusean arnas ezintasun hori handiagoa da, eta gripean, aldiz, giharretako mina da altuagoa.

Noiz dago kutsatzeko aukera?

Kutsadura gehienak sintomak agertu ostean gertatzen dira. Inkubazio epean kutsadura maila oso baxua da, ia ez da gertatzen, baina inoiz ezin da %100 ziurtatu. Gripearen kasuan, inkubazio epean kutsagarria da.

Ze fasetan dago hemen?

Espertakoa zen honaino iristea ere. Kasuak goraka doaz eta uste dut gailurrera ez garela iritsi, kasu gehiago ikusiko ditugula. Ziurrenik, beste aste batzuetan gora egingo du kopuruak, baina ez dakigu noiz arte. Txinan kasuen jaitsiera nabarmenean daude orain.

Hemengo kopurua esanguratsua da?

Ez daude hainbeste kasu. Hala ere, kasuak kontrolatzeko, garrantzitsuena izango da ematen ditugun euste neurri horiek eta berrogeialdi horiek. Hau da, pertsona bat kutsatzen denean, jarraipena egitea eta ikustea nola kutsatu den, eta abar.

Heriotza-tasa zenbatekoa du?

Mundu mailan, kutsatzen direnen %2-3 hiltzen dira. Hemen, kasu gutxi dauden arren, espero da tasa hori antzekoa izatea. Heriotzari dagokionez, halere, inportantea da nabarmentzea nortzuk hiltzen diren. Nagusiki hiltzen dira aldez aurretik sistema immunologikoa ahulduta zuten pertsonak, beste patologia edo infekzio batzuk zituztenak.

Aiurri.eus webgunea

Aiurriko erredakzio taldea informazio eguneratua zabaltzeko lanean ari da. Horretarako bide zuzenena Aiurri.eus webgunea da, eta baita ere Aiurri lotutako sare sozialak ere. Erakunde ezberdinetatik zabalduko oharrek bertatik bideratu dira, informazioa jaso eta berehala.

Gipuzkoako lehen hildakoa

69 urte zituen andoainarra da, eta Osakidetza heriotzaren berri eman zuen astelehen arratsaldean: "Aurretiaz gaixotasun gehiago zituen". Albisteak ezinegona ekarri zuen Andoainera, eta Udal arduradunek lasaitasunerako mezua zabaltzeko agerraldia deitu zuten.

Herritarrei ze mezu transmitituko zenieke?

Lasaitasuna da mezu nagusia. Gomendioa da sintoma horiek agertu ezker, etxean gelditu eta Osakidetza deitzea, eta haiek baloratuko dute ea proba egin behar den edo ez. Profesionalak zure etxera joango dira, proba arin bat egingo dizute eta ordu gutxitan heltzen da emaitza. Positiboa bazara, neurriak hartuko dira eta bestela, normaltasunez jarraitu. Horrez gain, funtsezkoa da higie neurriak hartzea. Nagusia eskuak sarritan garbitu, eskuakin guztia ukitzen dugulako.

Erakundeen agerraldiak, egunotan



Maidier Lainez alkatea, Udal ordezkariekin batera. AIURRI

Andoaingo Udala Astearte goizean agerraldia egin zuten, lasaitasun mezua zabaltzeko. Osasun adituen aholkuak jarraitzeko eskaera egin zuten. Sintomak izanez gero, etxean geratu eta Andoaingo Osasun Zentrora deitzea eskatu zuten (943 00 66 70).



Eider Mendoza, Aldundia. ALDUNDIA

Foru Aldundia Agerraldi ezberdinetan birusaren inguruko informazioa ematen ari zuen. Astearte arratsaldean adineko egoitzei buruzko protokoloaren berri eman zuten. Bisitak mugatzea erabaki zen: ordubeteko bisita bakarra, egoiliar bakoitzeko. Gizarteratze eta haurtzararen arloetara edota autobusen gidarien sektorerara esku hartze protokolo bana bidali dutela erantsi zuten.



Agerraldia, astelehen arratsaldean. EJ

Eusko Jaurlaritzak Haurrei egunero tenperatura hartzea iragarri zuten astelehen arratsaldean. 37C-ko tenperatura izanez gero edota arnasa hartzeko arazoak antzemanaz gero, haurra etxean uztea eskatu zuten. Gasteizen eta Bastidan ikastetxeak itxi zituzten.

Biztanleria talde ahulak babesteko lehentasuna

Andoaingo Udaleko Gizarte Zerbitzuetan eta Osakidetzan neurri bereziak hartzen ari dira Covid19 Koronabirusak ahalik eta eragin txikiena izan dezan. Anbulatorioan, Adinekoen egoitzan edota eguneko zentroan protokolo zehatzak ezarri dituzte

X.Lasa, J.A.Ubeda ANDOAIN

Euskadin egoera kontrolpean izan arte, protokoloak egunez egun alda daitezke. Hauxe zen egoera, asteazkenean.

Andoaingo Anbulatorioa:

Osakidetza gainerako anbulatorioetarako agindutako protokoloa ezartzen ari da. Bertaratzen denari edo telefonoz hots egiten duenari oinarritzko informazioa helarazten zaio.

Gela berezia prestatu dute, erizain baten ardurapean dagoena. Sintomatologiarekin (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasunak...) datorren herritarra gela horretara bideratzen dute. Aurreneko egunetan sarreran ahoko maskarillak jartzen hasi ziren, baina berehala desagertzen zirenez, bertatik kentzea erabaki zuten.

Eguneko Zentrua:

Egunero-egunero bertaratzen diren adineko pertsonen egunean bitan tenperatura hartzen diete. Eskuak maiz garbitu behar izaten dituzte.

Adineko pertsonen koronabirusaren gaitza harrapatzeko arriskua handiagoa dutela kontuan hartuta, astehelenean erabaki zorrotza hartu zuten egoitzan, neurri prebentibo gisa:



Andoaingo Anbulatorioaren kanpoaldea. AIURRI

egoitzara egunero hurbiltzen diren 22 pertsonetatik hamarrei etxean geratzeko gomendatu zieten. Eztula egiten zutelako edo arnasa hartzeko arazoak zeuzkatelako, ez beste ezergatik.

Jubilatuaren egoitza:

Tabernaren eta Bertxin elkar-tearen egoitzaren sarreran eta irteeran eskuak garbitzeko protokoloa ezarri dute.

Apartamentu babestuak:

Udalaren ardurapean dauden zortzi apartamentuetan bizi di-

ren adineko pertsonen erizain batek tenperatura egunean bi txandatan hartzen die.

Gizarte eta kultur mailako ekitaldiak:

Unetik unera aldatuz doa birusarekiko informazioa, eta herri mailako arduradunak Udalaz gaindiko agintarien esanetara daude. Asteazken eguerdian Udalari egindako kontsultan, asteburua begira iragarrita zeuden gizarte eta kultur mailako ekitaldiak bere horretan mantentzen ziren.

Neurri zorrotzak San Juan Bataiatzailean

Ama Kandida etorbidean dagoen San Juan Bautista Bataiatzailea Zahar Egoitzara sartzeko eta bertan egoteko protokolo zorrotza ezarri dute.

Hasteko eta behin, sartzeko eta irteteko eskuak garbitu behar dira. Sarbidean, gainera, erizainek sartzeko guztiei gorputzaren tenperatura hartzen diete.

Astearen hasieran hainbat segurtasun neurri hartu zituzten, birusaren garapenaren arabera aldatuz joan daitezkeenak.

Prebentzio neurriak

- Andoaingo egoitzaren ordutegia mugatu egin dute: 11:00-12:00 / 17:30-18:30.
- Bisitak mugatu egingo dira: bisita bakarra, egoiliar bakoitzeko.
- Aste osoan zehar bisitaldian hurbilduko den senidea edo bisitaria pertsona berbera izatea aholkatu dute.
- Sarreran tenperatura kontrola egingo da.
- Sukarra edo arnas sintomak izanez gero, ez da bisitaldia egitea onartuko.

- Zorrotz jarraituko dira eskuetako higie-neurriak.
- Pertsonen artean segurtasun tarte gordeko da, eta ez da beste egoiliarrekin kontakturik ahalbidetuko.
- Egoiliarrek ez dira bere solairutik mugituko.

EGOITZAN SARTU ETA IRTETEKO ESKUAK GARBITU BEHAR DIRA. ETA DENEI TENPERATURA HARTZEN ZAIE



Langile bat eskuak garbitzen, San Juan bataiatzailea eraikinaren sarreran. AIURRI

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

EH BILDU ANDOAIN

Andoain Elkarlanean

Hiru aste pasa dira “Andoain Elkarlanean” dinamikaren baitan Udal gobernuak deitu zituen bilerak amaitu zirenetik. Balorazio ofizialik ez du egin Udal gobernuak, eta nahikoa datu esanguratsua da hori ere.

6 bilera egin ziren orotara, 3 Basteron, bat La Salle ikastetxean, beste bat Udaletxeko pleno aretoan eta azkena Aita Larramendi ikastolak Rikardo Arregi kalean duen instalakuntzatan. EHBilduk bilera horien informazioa herritarrekin batera jaso zuen, ez lehenago. Auzoz-auzoko bilerak egingo zituztela uste genuen, baina arrazoi zuten, hau ez da auzoz-auzoko bilera erronda izan. Herrigunean egin diren bilera sorta bat izan da, eta bertara hurbiltzea eskatu zaie auzoetako bizilagunei. Egitura aldaketa txarrera izan dela uste dugu, eta kuantitaboki asko nabaritu da; hautetsiez gain, 85 herritarrek parte hartu dute 6 bilera hauetan, aurreko agintaldiko kopuruetatik oso urrun. Hori dela eta, bilera horietara hurbildu diren 85 herritar horiei eskerrak eman nahi dizkiegu, bereziki urrunen dauden auzoetako kideei, udaletxeraino joateko egin zuten ahaleginagatik.

Bilera horietan zalan-tza ugari geratu dira airean, erantzun gabe geratu zirenak. Ziurgabetasun sententzia handia izan da zalan-tza batzuen aurrean egon den erantzun faltagatik. Horien artean,

N-1-aren etorkizunaren aurrean erakutsitako jarrerak bereziki kezkatu gaitu. Udal Gobernuaren aldetik ez da erantzunik eman. Ezezagutza edo gardentasun falta dago Foru Aldundiak dituen planen inguruan eta kezkarria deritzogu Andoaingo interesak defendatzetik oso urrun kokatu dela Udal gobernu hau. 9 hilabete pasa dira agintaldia hasi zenetik, eta gaur gaurkoz gaiaren inguruan hitz egiteari uko egin diote horrela eskatu dugun batzorde guztietan, eta gaiaren inguruan ez dute kudeaketa ofizialik egin. Gure kezka areagotu besterik egin ez duen datua: aurkeztu dituzten 65 neurrietan, ez da N-1 errepidea aipatu ere egiten.

Antzekoa gertatu da errepide honek sortzen dituen soinuaren kontrako panelen eskaerarekin. Agintariekin soilik Ikastola parean jarriko direla esan zuten. Ez da horrela, lehen fasean Ikastola parean jarriko dira, eta hurrengo fase baterako Mimendi eta Sorabillako altueran jartzea onartuta dagoelako. Aurreko agintaldian egin genituen eskaeren ondorioz jarriko dira, eta ikusten da gai honekiko kezka handirik ez dutela.

Amaitzeko, otsailean esan genuen bezala, “Andoain, herri bat bizitzeko” egitasmoa osatzeko herriko eragile ezberdinekin bilerak egingo ditugu. Hasi gara jada lehen hitzorduak zehazten.



LEHIAKETA

AIURRI ANDOAIN-URNIETA

300 partaidetik gora Egunean Behineko 'Aiurri' taldean

Arrakasta handiko ekimena izan da “Aiurri” taldea sortzea. Irarpena egin eta ordu gutxira parte hartze handia lortu zen. Dagoeneko “Aiurri” taldera 320 lagunetik gora batu da. Bi sari banatuko dira, aste honetan. Andoaingo Arruti Gozotegiaren eskutik, irabazleak 2 gosari eskuratuko ditu. Era berean, beste 2 gosari zozketatuko dira aste osoan zehar parte hartu duten gainerako lehiakideen artean.

Aurreko astean iragarri bezala, hiru astez jarraian sariak banatuko dira:

Martxoak 16, astelehena.

Martxoak 9-15 asteari dagokion sari bikoitza. Gosariak Andoaingo Arrutin eskainiko dira.



Aste honetako partidak jokatzeko dituztenen artean bi sari banatuko dira. AIURRI

Martxoak 23, astelehena.

Martxoak 16-22 asteari dagokion sari bikoitza. Gosariak Amasa kafetegian eskainiko dira.

Martxoak 30, astelehena.

Martxoak 23-29 asteari dagokion sari bikoitza. Laster zehaztuko dugu saria non eskainiko den.



Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urrietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ERROITZ** BATZU MUGATZA

ALJATUAK: **INSTITUCIO**

TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

Urrietako udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hikuntza Berlitasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA: **Bikain**

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



Udal ordezkariak zabala elkartzeaz gain, adin guztietako herrikideak hurbildu ziren San Juan plazako elkarretaratzera. AIURRI

Elkarretaratzea Urnietan, Udalak deituta

Elkarretaratzeari amaiera eman aurretik, Udalak adostu duen adierazpena irakurri zuten. "Udalerriko emakumeen baldintzak eta egoerak sistematikoki" aztertzeako konpromisoa berretsi zuten, besteak beste



Elebietan irakurri zuten Udal adierazpena, igande eguerdian. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Euskaraz eta erdaraz irakurri zuten manifestuan, haxe mezu osotik oinarritzakoa: "Emakumeen borroken garaia ez da amaitu. Mundu osoan eta gure tokiko komunitateetan oraindik ere emakumeenganako bereizkeriak eta ezberdintasunak daude, emakume izate hutsagatik. Bereizkeria hori beste batzuekin gurutzatzen da: klase, etnia, adina, kultura, sinesmenak,

migrazio-estatusa, sexu-orientazioa, genero-identitatea edo gaitasunak, besteak beste.

Beijing Ekintza Plataforma munduko mugimenduak 25 urte bete dituenean, generoen arteko berdintasuna mundu baketsu, oparo eta iraunkorra lortzeko beharrezko oinarria da. Berdintasuna gizarte osoaren mezu bakar gisa aldarrikatzeko garaia da. Emakumeen borrokek eta kaleetako mobilizazioek insti-

tuzioei konpromiso irmoko ariketa egitea eskatzen digute:

- Genero-harremanak eraldatzea gure udalerrien eta gure administrazioen bizitzan.
- Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak errotik kentzea eta egiturazko indarkeriari lotutako biktimak erreparatzea.
- Izaera guztietako emakumeek tokiko bizitzako ekonomian, gizartean, politikan eta kultu-

Sentsibilizazio ekimen ezberdinak



Data iristen denean, muralak eta pankartak ikusi ohi dira kaleetan. AIURRI



Herritar talde batek kazerolada egin zuen herrigunean, Martxoak 8 borrokarako eguna dela aldarrikatuz. AIURRI

ran parte hartzeko baldintzak eta aukerak eraikitzea.

- Diskriminazio mota guztien aurka borrokatzea.
- Bizitza erdira ekarriko duten gizarte-antolakuntza erantzunkideak diseinatzea.

Tokiko euskal gobernuok konpromiso horiek gure herri eta hirietan egia bihurtzeko politikak diseinatu eta kudeatu behar ditugu, eta horrexegatik, Urnietako Udalak konpromiso irmoa

adierazi du berdintasunezko gizarte inklusiboa eraikitzen laguntzeko, pertsona guztien eskubideak eta parte-hartzea bermatuko dituen.

"MOBILIZAZIOEK INSTITUZIOEI KONPROMISO IRMOKO ARIKETA EGITEA ESKATZEN DIGUTE"



270 argazkiz osatuta dago Basteroko erakusketa, Andoaingo emakume langilegoari eskainita osatu den hirugarrena. AIURRI

Emakume langileak ageri dira argazkietan

“Herria herri bilakatu zuten Andoaingo emakumeak III” argazki-erakusketa zabalik dago Basteron, datorren apirilaren 15a bitarte. Itsaso Mendiluzek zuzendu duen erakusketa sortaren hirugarrena eta azkena da

Xabier Lasa ANDOAIN

Andoaingo emakume langileen historia iluntasunetik argitara jartzeko asmoa duen hirugarren erakusketa atondu du Itsaso Mendiluzek. 270 argazkiz osatzen da Basteroko erakusketa, eta guztiek ere makina bat lantegietan lanean aritu ziren emakumeak protagonista bilakatzen dituzte. Joan den ostiralean egin zen irekiera ekitaldia, eta apirilaren 15a bitarte arte egongo da ikusgai.

Irudi guztien artetik 1926. urteko erretratua da zaharrena (Algodonerako langile taldea), eta berriena, berriz, 2018koa (Intexeko langileak Martxoak 8ko egunean, Zumea plazan). Erakusketaren kronologia markatzen duten bi argazki horien artean kokatzen dira Basteroko hormetan zintzilikatu diren gainerakoak.

Emakume langileak egoera desberdinetan erakusten dituzte argazkiek: tailerrean, bulegoan edo ekonomatoan lanean, asan-

bladak prestatzen edo eta ospakizun eta bilkura berezietan (bazkariak, jai egunak...). Argazki askoren azpian, identifikatu datoz bertan nortzuk azaltzen diren.

Ikusleen harridura eta irribarre konplizea eragiten duten makina bat argazki topa daitezke erakusketan zehar. Esate baterako, Spar saltokiko langileak Urtain boxeolariarekin 1969an atera zutena.

Datu jakingarriak ere, esku-kada bete eskaintzen ditu erakusketak. Horietako bat izan daiteke Labordeko emakumeek sortu zuten Lorea abesbatza 1954an, Juan Bautista Barandiaran zuzendari zutela.

Erakusketa Andoain geografikoki kontutan hartuta egituratu da. Horrela, Sorabillatik hasi eta Gudarien Etorbidea bitarte, Andoaingo historia hurbileko industrigintzaren errealitatea osatu duten hainbat lantegi ageri dira, emakume langileen ikuspegitik. Hala nola,

Inquitex, Fierro, Algodonera, All-Fix, Papelera Leizaran, Plásticos Garden, CAR, Eroski, Sapa, Silen, Intex, Spar, Celulosas Andoain, Moleda, Laborde, Zia-ko, Olamia eta Krafft.

Irudiak ez ezik, beste zenbait elementu (prentsa artikulua, langileen nominak...) erakusgai jarri dira ere, erakusketa aberastera datozenak.

Trilogiaren azkena

Mendiluzek paratu duen hirugarren erakusketa da honako haxe. Aurpegiak eta izen-abizenak dituzten Andoaingo emakume langileak plazaratzea izan du ardatz, hirurak atontzeko orduan. Bere hitzetan, “iluntasunetik argitara ateratzea justiziazkoa zen. Argazkiak erakustea Andoaingo historia hurbila kontatzeko eta agertzeko modu egokia izan liteke. Artxi-boetan oso gutxitan ageri ohi den informazioa izan arren, gure aurreko emakumeen egunerokotasuna islatzen dute”.

Erakusketa Basteron



Itsaso Mendiluze erakusketaren arduraduna da. AIURRI

Trilogia 2018an, lantoki edo merkatal guneetan lanean aritu ziren 35 emakumeen errealitatea islatu zuen. Iazkoan, 1910-1981 arteko dozenaka argazki eta datu eskaini zituen.



Hainbat emakume argazki zahar bateko partaideak identifikatzen. AIURRI

Liburua Etorkizunean, jasotako material guztia liburu batean biltzeari ekingo dio Mendiluzek. Oraindik ere material berria jasotzeko prest agertu da.



Arregi, Abrego, Gutierrez, Jalon eta Trutxuelo. AIURRI

Erakusketa Bilgunean

Argazkigintzan eta jarduera ezberdinetan aritzen diren kulturgileei ateak zabaltzeko Bilguneak. Zumea kaleko egoitza erakusketagune bilakatu zuten, beraz. Bakoitzari bere enfoketik hausnarketa egitea eskatu zieten adierazi zuten Mujika EH Bilduko zinegotziak.



Manifestazioa Goikoplazatik abiatu zen, Zumea plazan amaitzeko. AIURRI

Dozenaka lagun Andoaingo manifestazioan

Andoaingo Asanblada Feministak antolatuta, dozenaka lagun elkartu zen igande eguerdian. Herrigunean zehar ibili eta gero, amaierako ekitaldia egin zuten Zumea plazan. Bertan txalo artean amaitu zen manifestua irakurri zuten

Erredakzioa ANDOAIN

Azken urteotan gertatu bezala, martxoaren 8ak herrikide askoren arreta bereganatu du. Izan ere, azken urteotan manifestazio jendetsuak burutzen ari dira. Aurreko urteetan egunak greba deialdiarekin bat egin zuen, baina aurtengoan aldarrikapenez beteriko ospakizuna izan zen.

Eguerdian hasita, adin guztietako herrikideak manifestazioan irten ziren Arrate aldera. Herrigunean ibili eta gero, Zumea plazan amaitu zen manifestazioa. Adierazpena eta gero, kantu bat abestu zuten. Deitzaileek eta hainbat lagunak, ondoren, bazkaria egin zuten Makaldegian. Eta handik asko eta asko Do-

nostian deitu zuten manifestaziora abiatu ziren. Arratsaldeko 18:00tan Boulevardetik abiatu zen manifestazioa jendetsua izan zen. Han "El Violador En Tu Camino" koreografia ezaguna eskaini zuten. Amerikatik datorren ekimena mundu mailako fenomeno bilakatu zen, egun gutxiko epean.

Adierazpena Zumea plazan



Sanchezek eta Mujikak manifestua irakurri zuten, Zumea plazan. AIURRI

Manifestazioaren amaieran haxe izan zen Andoaingo Asanblada Feministak zabaldu zuen mezua:

"Aurten berriro ere kaleak betetzen ari gara, eta ozen eta argi esan nahi dugu: jendarte eredu hau bizigaitza dela pertsona gehienontzat, batez ere emakume eta genero disidenteontzat, eta jasanezina planetarentzat. Greba feministetatik greba orokorrera joan ginen eta gaur borroka egun izugarria antolatzen ari gara. Zorionak!

Beste alde batetik, gaur, aurtengo martxoaren 8an, 20 urte betetzen dira Emakumeon Mundu Martxa plataformak mundu mailako lehenengo ekimena egin zuenetik, eta urte honetan Nazioarteko V. ekintza antolatuko da mundu mailan, "Bizitzeko erresistitzen dugu, eraldatzeko martxan gaude" lelopean. Euskal Herrian urrian ekintza bateratu bat prestatuko da, migrazioaren errealitatea ikustarazi eta mugek zein trasnazionalek jokatzen duten papera salatzen. Denak aske izan arte martxan jarraituko dugu!

Borroka feministan emakumeen autoantolakuntzaren beharra azpimarratzen jarraitzen dugu. Neoliberalismoak gure bizitzarengan eragin handiegia duen mundu honetan, gehiegizko indibidualismoa eta atomizazioa sustatzen den mundu honetan, konprometitu izango den komunitate feminista eraiki behar dugu, sare sozialek sustatzen duten pasibotasuna gaindituz. Gure taldeetatik, kolektiboetatik eta kalean egiten diren asanbladetatik presioa eginez jarraituko dugu.

Guk ez dugu berdintasun formalik nahi, ezta mugarik gabe kontsumitzeko edo pertsonak eta lurraldeak esplotatzeko berdintasunik ere, ez dugu munduko beste leku batzuetan eta gure inguruan emakume askoren esplotazioa sakontzen duten errezeta neoliberalik nahi. Tokian-toki jarduten dugu planeta osoko gure ahizpa feministekin konektatuta egoteak ematen digun ikuspegi globalarekin.

Gure feminismoak hainbeste ahaleginekin lortutako eskubide sozial zein politikoetan emandako atzerapausoari egin behar dio aurre. Baina, gaur ozen eta garbi diogu, aurrean gaituzue!!

Arrazoi horiengatik guztiengatik irten gara kalera; suntsitzen gaituen kapitalismo basatiari aurre egiteko, eta xenofobia gure sozializazioaren parte bihurtuz eskubideak urratzen dituen arrazakeria instituzionala apurtuko duen feminismoa aldarrikatzera irten gara.

Errealitatetik urrun egon eta gorputzak eredu zurruntara lotzen gaituen binarismoa eta merkantilizazioa borrokatzeko feminismoa da gurea, norberaren gaitasuna jopuntuan jarri nahi duena, norberak bere gorputza defendatzeko duen gaitasuna defendatuz. Baita norberaren sexu eta ernalkuntza eskubidea ere, hala nola dibertsitatea eta askatasun sexuala. Eta, azkenik, gaur eta beti feminismo antifaxista defendatzen jarraituko dugu zaharkituta, misoginoa eta homofobia den eskuin muturrari aurre egiteko. Berriro diogu: Parean topatuko gaituzte. Ez dira pasako. Aurten ere borrokan gaituzte! Gora borroka feminista!".

Bazkaria Makaldegiko gune estalian

Andoaingo Asanblada Feministak ekitaldi sorta antolatu zuen aurreko astean. Martxoaren 5ean pintxopote feminista egin zuten. Iganderako, berriro, hitzordu bikoitza deitu zuten: Manifestazioa herrian barrena, eta bazkaria Makaldegian. Lagunartean elkartu ziren, Goiatz Salbador abeslariaren zuzeneko emanaldiarekin girotuta.



Bazkaria egin zuten Makaldegian, manifestazioa amaitu eta gero. AIURRI



Aurtengo omenduak, taldeko argazkian. Zutik: Teresa Echavarri, Josefa Pereira, Valeria Viguera, Mertxe Belamendia eta Arantxa Garmendia. Eserita: Lidia Egido, Mari Karmen Txapartegi, Mila Garraida eta Laura Martinez. Alba Rodriguezek ezin izan zuen ekitaldian parte hartu bezperan istripu txiki bat izan baitzuen. AIURRI



Petri Romero, zinegotzia. AIURRI



Jone Larrañaga, aurkezlea. AIURRI

Jon Ander Ubeda AIURRI

Komunitatea indartzeko ekitaldi bakan eta berezi horietakoa da. Balio erantsiarekin, gainera: Berdintasunaren alde zabaltzen den mezu indartsua. Txalapartarekin eta Petri Romero Berdintasun zinegotziaren adierazpenarekin hasiera eman zioten ekitaldiari. Borroka egitearen garrantzia azpimarratu zen, zinegotziak irakurri zuen manifestuan: "Borrokek aldaketak ekarri dituzte, eta gizarteak berdintasun eta demokrazia maila handiagorantz egin du aurrera. Hainbat urtez mobilizazio ugari eta bi greba feminista egin ondoren, kaleetako aldarria argia eta irmoa da gure gizarteak justizia eta demokrazia terminoetan aurrera egin dezan. Beharrezkoa da printzipio eta aldarrikapen feministak egituratan zein erakunde politikan txertatzea".

Omenduak belaunaldi ezberdinetako emakumeak dira, alor askotarikoak, bakoitza bere aleksa jarritz gizarte bizitzan emakumea lehen lerrora ekartzea lortzen ari direnak. Ondarreta ikastetxeko ekitaldian Jone Larrañaga aurkezleak emakumeen ahalduztzean jarri zuen azpimarra: "Ez gara kokiltzen eta bede-

Emozio handiko ekitaldia

Bederatzigarrenean ere emozioak gainezka ospatu zen "Pausoz pauso" berdintasunaren alde egiten den ekitaldia. Aldarrikapena eta festa uztartu ziren ekitaldian, herriko eragile ezberdinen parte hartzearekin

ratzigarren urtez bildu gara, martxoak 8 dituen aldiro bezala, 8 emakume, 8 bizitza, 8 historia plazara ateratzeko. Haien amonak eta birramonak, herri honetan bizi izan diren emakumeak, emakume denak nahi ditugu oroitu. Eta haien bizitzak itzalpetik argitara atera. Haiek izan direlako

"BORROKEK ALDAKETAK EKARRI DITUZTE. GIZARTEAK BERDINTASUNEAN EGIN DU AURRERA"

gara, bagara, eta nahi dugu pareko izan, gu izan, inoren itzalpeko ez izan".

Aurkezpene egin eta gero, Larrañagak omenaldia jaso zuten emakumeak aurkeztu zituen banan-bana. Haien argazkia panelean itsasteko beste emakume bat hurbiltzen zen, eta horiexek

"HAIK IZAN DIRELAKO GARA, BAGARA, ETA NAHI DUGU PAREKO IZAN, GU IZAN"

izan ziren ekitaldikiko unerik hunkigarrienak.

Teresa Echavarri, Mila Garraida, Laura Martinez, Mari Karmen Txapartegi, Arantxa Garmendia, Lidia Egido, Mertxe Belamendia, Josefa Pereira eta Valeria Vigueraarentzat eta euren familia zein laguntzentzat ekitaldi ahaztezina izan zen.

Bizitzak aurrera darrai, eta bakoitzak bere aldetik berdintasunaren bidean lanean darrai. Urrutira joan gabe, astelehen eguerdian pentsio duinen aldeko Valeria Viguera eta Josefa Pereira asteroko hitzordura hur-

Ekitaldia bideoan

Larunbateko ekitaldiaren bideoa ikusgai dago Aiurri.eus webgunean. Sarbidea bi modutara egin daiteke, "Bideoak" atalean klik eginez edo "Martxoak 8" kanalean klik eginez. Bertan ikusgai dago ekitaldia, ia bere osotasunean: Omenduen aurkezpenak, dantza eta musika saioak, ikasleen performancea eta bertso saioa...

Horrez gain, "Martxoak 8" kanalean zikloari lotutako albisteak, argazkiak eta bideoak ikusgai daude.

bildu ziren. Beste aste batez, pentsio duinak aldarrikatzera. Goikoplazara bertaratu zirenei emakumezko pentsiodun guztiak ordezkatu zituztela adierazi zieten. Bizitzak aurrera darrai. Borroka eginez jarraitu beharra dago.



Performancea eskaini zuen Aita Larramendi ikastolako ikasle talde batek. AIURRI



Dantzariak eta txistulariak aurtengo omenduei agurra dantzatu zieten. AIURRI

Ikasleen parte hartzea

Emakumeek historian egindako borrokaldia hizpide izan zuten Aita Larramendi ikastolako eta La Salle Berrozpe ikastetxeko ikasleek. Ikastolakoek ekitaldiaren hasieran parte hartu zuten, performance baten bidez. La Salle Berrozpe ikastetxeko ikasleek adierazpena eta bertso-sorta abestu zituzten. Sorabillako Harrera Etxeak ere parte hartze aktiboa izan zuen.



La Salle Berrozpe ikastetxeko ikasleek bertso sorta eskaini zuten. AIURRI



Miren eta Maite, Maizorri taldeko txalapartariekin hasi zen emanaldia. AIURRI



Bastero plazatik Ondarreta ikastetxeko bidea egin zuten omenduek. AIURRI

Ondarreta ikastetxean

Eguraldia dela eta, Goikoplazara abiatzeko aukera baztertu egin zen. Ekitaldia Bastero plazan hasi eta Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian amaitu zen. Txalapartarekin hasi zen Bastero plazako ekitaldia, eta Soinuak musika eskolako gitarrajoleen doinuekin abiatu zen Ondarretakoa.

Zuenako zumba taldeak ekitaldiari amaiera eman zion, bi dantza ezberdin eskainiz.



Zuena emakumeen taldeko kideak Zumbako saio betean. AIURRI

Asteburuko argazkietakoa

FUTBOLA Keinu txikia, baina balio handikoa izan zen zen Andoaingo eta Urrietako kadete mailako neskena. Ubitarten partida hastear zegoenean, bi taldeko jokalariek "Ez dugu ausartak izan nahi, askeak baizik" zioen pankartaren atzean atera ziren. Atzetik zetozen jokalariek, gainera, eskutik helduta zelairatu ziren. Keinu horrekin ikuslegoaren txalo zaparrada jaso zuten.



andoaINDARRA
euskaraz

Andoni Urbistondo URNIETA

Futbola eta Realetik harago, errugbia eta Hernani taldearen jarduna izango dira, ziur aski, Urnietan kirol lehiaketetara jende gehien mugitzen duen kirol diziplina. Kepa Mijangos hirugarren lerrokoa da klubean jarraikortasun gehien duen urnietarra. Flanker-ak bizitza erdia darama Landaren, borrokan, plakatzen, kolpeak ematen eta jasotzen, baina baita hirugarren denborarekin gozatzen ere, zelaiko borrokak bukatzen direnean. Hernanik maila galduko du, mirariren bat gertatu ezean, bost jardunaldiren faltan hamabost puntura baitu salbazioa.

Etorkizunari begira, harrobiko proiektua gauzatzearen aldekoa da Kepa, “sor daitezkeen gabezia edo beharrei erantzuteko fitxaketak eginez”. Hori bai, garbi uzten du: “Erabaki hori zuzendaritzak hartu behar du, ez jokalariai”.

Nor da Kepa Mijangos?

22 urteko gazte bat naiz, urnietarra. Irakasletza ikastaro bat egiten ari naiz on-line arratsalde, eta goizetan GKE batean ari naiz lanean, kaptadore jardunean, lau orduz. Geratzen zaidan denbora librean, ba errugbia, gimnasioa...

Ze ibilbide egin duzu errugbian?

10-12 urte atzera hasi nintzen, lagun baten eta haren gurasoen bitartez. Probatu nuen, eta ondoren ezin utzi. Beste kirol batzuk ere probatu nituen, baina errugbia hautatu nuen.

Hirugarren lerroan jokatzen duzu. Zer egiten du lerro horretan jokatzen duen jokalariai?

Ba batez ere plakat, guk diogun bezala, potoloen artean azkarrena izan. Denetatik egiten dugu. **Zenbat urte lehen taldean, dagoneko?**

Laugarrena osatzen.

Zer gustatzen zaizu gehien errugbian?

Txikietan daukazu ametsa, ilusioa gauzatzen dela ikustea, lehen taldera iritsiz. Hernanin ari naiz, Espainiako Lehen Mailan, eta hori oso urrun zegoen erronka moduan ikusten nuen gaztetxoa nintzenean. Familia bat garelako asko atsegin dut. Lehiaketatik harago doan talde indartsu bat gara, asko betetzen nau horrek.

‘Gaizkileen kirol diziplina, zintzoek jokatzen dutena’, dio esaera ezagun batek errugbiaz.



Zutik, baloia eskuetan, Kepa Mijangos urnietarra. INIGOARIZKORRETA

“Errugbia nire familia da, bigarren etxea”

KEPA MIJANGOS HERNANI TALDEKO ERRUGBI JOKALARI URNIETARRA

ERRUGBIA Hernani jaitsieratik gertu dago, Lehen Mailan zortzi urte jarraian osatu ondoren. Klubean eztabaida handia dago, etorkizuneko proiektuaz: harrobia edo fitxaketak

Hala sentitzen dut nik ere. Eza gutzen ez duenak kirol agresiboa, oldarkorra dela pentsa dezake, baina barrutik bizitzen duzunean kontrakoa da. Kontaktuko kirola da, bai, baina partida bukatzen denean dena ahazten da, eta hirugarren denbora famatu hori hasten da.

Nik lagun piloa egin dut errugbian, familia bat sortu arte. Sentsazio hori daukat. **Diotenez, ‘Rugbyer’ bat hil arte da errugbi zalea.**

Bai, batez ere jokatzeari uzten diozunean. Jokatzen duzunean normala da, baina lesionatuta egon eta kanpotik bizitzen du-

zunean, ikaragarri sufritzen da. Nik behintzat bai.

Kontaktu kirola esan duzu. Lesioak al dira errugbiaren gauzarik txarrrena?

Ez dakit. Ni zortekoa izaten ari naiz, ez dut lesio larriarik izan dituen jendea ezagutu izan

dut, hori bai. Niretzat okerragoa da oraintxe bizitzen ari garen egoera txarra, psikologikoki, partida asko galtzen jarraian. Asteburu bat Madrilera, hurrena Sevilalara... Dena eman, ordu asko autobusetan, hara eta ona, eta ezin emaitza onik lortu.

Egoera psikologiko gogorraz mintzatu zara. Batez ere gazteenak zaretenontzat, ezta?

Bai. 18 urte bete arte Euskal Liga batean jokatzen duzu. Getxora joaten zara urrutien, baina Lehen Mailan zaudenean gogorragoa da, beste faktore batzuk sartzen dira jokoan.

Mirari bat behar da Hernanik Lehen Mailan irauteko, 15 puntura duzue salbazioa. Ze analisi egiten duzu?

Gorabehera asko eduki ditugu, eta maila galtzeko arriskua benetakoa da, hori ukaezina da. Baina beno, partida batzuk geratzen dira oraindik, eta matematikoki aukerarik ez dugun arte gure bete beharra saiatzea da, egoerari buelta emateko. Partida asko galdu ditugu jarraian, baina indartsu sentitzen gara, duintasunez jarduteko, sikiera.

Zergatik zaudete, sailkapenaren zuloan?

Faktore asko batu dira. Baja asko iazko denboralditik, jokari gazte asko gaude, lesio ugari ere bai... Lehen Maila liga exigentea da oso. Bi partida galdu ditugu puntu bakarragatik, eta bi garaipen horiekin egoera arrunt ezberdina litza-teke.

Hernanik urteak daramatza amildegiaeren ertzean, baina zortzi urte egin ditu jarraian Espainiako goren mailan. Bere errealitatea onartu du, baina azken partiduetan, Landa-ko harmailetan etsipen puntu bat sumatu dela esango nuke. Zer diozu?

Baliteke, bai. Hiru aste atzera partida erabakigarria jokatu genuen etxean Santanderko Independienteren aurka. Itxuraz irabazteko moduko partida zen, promozio postura hurbiltzeko aukera aproposa, baina ezin okerrago aritu ginen, eta muturreko handia jaso (7-42 galdu zuten). Ez zitzaigun ezer atera, burumakur bukatu genuen, eta desilusioa agerikoa zen gure artean. Harmailetan ere antzera egongo zirela pentsatzen dut. Hurrengo partidaren ere galdu egin genuen, Santboianaren aurka (24-27), baina askoz itxura hobea eman genuen talde moduan. Irabazteko esperantza eduki genuen azken unera arte, eta indar hori taldean eta harmailetan nabaritu zela esango nuke.

Landaren jende piloa biltzen da, 700-800 lagun pasa beti. Zaleen babesa ez zaizue falta, behintzat. Gure arnasa dira. Gu ez gara errugbiar bizi, zaletasuna da, eta harmailetako beroa jasotzea kristorena da. Zelaitik aldageletara goazen aldapatxo hori ikaragarria da, jendearen txaloak jaso, emaitza bat edo beste izan, partida ona edo txarra izan. Oso lagungarria da jendearen hauspoa.

Urnieta jende puska bat Landa-rera joan zalea da.

Bai. Jokalari mailan ez dago hainbeste jende, baina bazkide kopuru polita Urnietakoa da. Herrian sarri ikusten ditut autotetan taldearen pegatinak, edo jendea gure klubaren kamisetarekin. Argi dago jarraipena badaukala Urnietan.

Jokalari ez profesionalak zarete, zeuen kirol fitxa ere ordaintzen duzue, entrenamendu asko loka-tzetan egin... Nola esplikatu zenuke horrelako kirol diziplina hainbeste gustatzea?



Baloia duen jokalaria ondoan, Mijangos urnietarra kasko urdinarekin. IÑIGOARIZKORRETA

Ezagutzen ez baduzu, normale-na kirol agresiboa dela pentsatzen duzu, baina ezagutzen duzun neurrian, aldatzen da zure iritzia. Nire gurasoei pasa zaie. Haiek hasieran gaizki pasatzen zuten. Eta bai, lesioak daude, baina beste kirol diziplinetan bezala. Beste ezeren gainetik talde lana, taldean jardutearen balioa nabarmenduko nuke. Familia bat gara, gure bigarren etxea, asko ikasten duzu, eta sakrifizioak handiak badira ere, merezi du. Bizitzeko modu bat da, eta profesional ez izatea bigarren mailakoa da erabat. Bete egiten duen kirol diziplina da, bizitzeko modu bat. Nik nire bizitzako zati handia pasa dut Landaren, eta dagoeneko nire bizitzeko moduaren parte bat da.

Asko sufritzen omen duzu emaitzak onak ez direnean.

Presioa sentitzen dugu, jende asko dago lanean atzetik: zaleak, zuzendaritzako kideak... Maila mantentzea erronka potoloa da, eta lortzen ez denean ba inpotentzia handia sentitzen da. Norberak bere bizitzan arazoak eduki eta sufritzen duenean bezala, ba halaxe egoten gara gu guzuzak ondo ez doazenean kirol

"JOKALARI MAILAN EZ HAINBESTE, BAINA URNIETAKO BAZKIDE KOPURU POLITA DAUKAGU"

mailan. Santanderren aurka, galtzeaz gainera, oso itxura kas-karra eman genuen, eta horrek, noski, arduratuta uzten zaitu. Azalpenen bila egon nintzen egun pare batean edo, nire buruarekin borrokan.

Nolakoa da, errugbian hain famatua den hirugarren denbora hori?

Zelaian gertatu dena ahaztu eta aurkariarekin errugbian jokatu izana ospatzen dugun une berezia da. Berdin da garaipena lortzea edo ez, hirugarren denbora partida ahazteko unea da, lagunekin egoteko tarte, pintxo batzuk jan, garagardo batzuk edan eta ondo pasatzeko tarte. **Hirugarren denbora ezagutu ez, eta ezagutzen duena aho bete hortz geratzen da.**

Jende askok flipatu egiten du une horrekin, bai. Beste kirol diziplinetan, norberak berea egin eta etxera joaten da. Gurean ez, eta gainera muturrekoka aritzen gara elkarri zelaian. Xarma handia daukan ospakizun berezia da.

Aurkariren batekin haserretu al zara seriozki inoiz?

Ez. Partidan gorabeherak, borrokatxoak izan bai, baina zelaian bukatzen da dena. Barkamena eskatu elkarri, eta kontrako

"300 BAT JOKALARI ARI GARA ERRUGBIAN LANDAREN, GEHIENAK BERTAKOAK, KOPURU POLITA DA"

efektua. Lagun gehiago egin ditut jokoan, aurkariak baino. **Nola ikusten duzu etorkizuna, maila galtzen bada?**

Beno, arriskua benetakoa da, eta aurre egin behar zaio, baina ez gaude jaitsi ez jaitsi dinamika horretan. Nire iritzian, trantsizio epe moduan hartu beharko genuke maila galtze hori, etortzen bada. Oso talde gaztea gara, ikasi egin behar da, zer pasa den aztertu. Lehen Mailan partida onak egin ditugu, aurkari onen aurka, eta horrek behar du izan ispilua. Harrobia badago, gazte indartsuak bultzaka datoz behetik, eta bigarren maila aproposa izan liteke taldea sendotu eta epe ertainean, urte pare batean edo, berriro Lehen Mailara bueltatzen saiatzeko.

Diotenez taldeko harrobia oso sendoa da.

Bai, hori baita Hernaniren filosofia. 300 bat jokalaria ari gara errugbian Landaren, gehienak bertakoak, kopuru polita da. Batzuk utziko dute, eta besteak etorriko dira. 20-22 urteko jende asko gaude, pauso bat aurrera eman behar dugunak, eta harrobia lagun, ba talde polit bat sortzen ahalegindun.

"20-22 URTEKO ASKO GAUDE, PAUSO BAT AUERRERA EMAN ETA TALDE POLIT BAT SORTZEKO"

Juan Rodriguez taldeko presidentek esan zuen, Hernanin ere aztertu egin beharko dela ze kirol eredu nahi den hautatu etorkizun-ean: etxekoekin soilik jarraitu, edo talde askok, ia denek egin duten bezala, bertakoak ez direnekin osatu lehen taldea. Zein da zure iritzia?

Beno, garbi uzte aldera, ni jokalaria naiz, ez da nire lana kirol ereduaukukatzea. Egia da oso proiektu indartsuak dau-dela ekonomikoki Bigarren Mailan ere, jokalaria mailan fitxaketa potenteak egin dituzte-nak, eta geografikoki guregandik oso gertu dauden taldeak: Bera Bera, Zarautz... Nire ustez itxaron egin behar da lehiaketa hasi arte, abuztua-iraila arte, ze talde osatzen den ikusi, aztertu, ea zenbatek jarraituko dugun. Nik harrobiko jendearekin jarraituko nuke, baina ulertzen dut agian beharrezkoa dela fitxaketaren bat egitea ba estra-tegikoak diren postuak osatzeko, denboraldi honetan pilier edo harroin postuekin gertatu den bezala. Taldekideen artean iritzi aniztasuna dago, eta debatea luze joan daiteke. Zer nahi den zehaztu behar da, aurren-aurre-na. Alegia, fitxaketak egin eta lehiakortasuna handitzen saia-tu, edota gaudenokoin ahal den neurri onena ematen saiatu. Erabakia ez da batere erraza.

Bai zeren eta inbertsioa ere ez litzateke makala izango diruz. Talde-kanpo ze giro, ze iritzi sumatzen duzue, zelaian, herriko kaleetan?

Beno, Hernani harrobian oinarritzen den taldea dela esango nuke, eta hori oinarri sendoa da. Aurten hiru fitxaketa egin dira premia handia zegoelako, eta horrek ez du Lehen Mailan irautea bermatu. Kirola da, mila gauza pasa ahal dira. Jendea ekartzearen aldeko iritziak dau-de, baina baita bertakoekin jarraitzea nahiago dutenak, emaitzari baino proiektu edo filoso-fiari lehentasuna ematen diote-lako.

Bazkideei galdetu beharko litzai-oke?

Ez dakit. Bazkideak oso inpor-tanteak dira, gure indarra, bai-na askotan taldearen beharrak batzuk izan litezke, eta bazkideen iritzia beste bat. Jokalari naizen neurrian ari naiz iritzia ematen, baina nire ustez zuzendaritzak erabaki behar du filosofia, proiektua eta beste.

Asteburu bikaina senior mailako taldeentzat

ESKUBALOIA Urnietako bi taldeek garaipen bana zituzten, amesten jarraitzeko. Gizonezkoek mailari eusten ahaleginduko dira, ligaren azken txanpan. Emakumeek, berriz, bigarren postua eskuratuta denboraldi bikaina egin dutela erakutsi dute

Mikel Arberas URNIETA
Urnietako Artola Harategiak azken mementorarte sufritu behar izan zuen Gure Auzune talde arabarrari irabazteko (28-29). Galdutzat zuten partidari 180 gradu bira eman behar izan zioten, puntu bakar batek ere ez zuten garaipena eskuratzeko. Urnietarrek uste baina zailtasun gehiago eduki zituzten txapelketako azken sailkatuaren aurka. Halaber, bi puntu garrantzitsu lortu dituzte mailari eusteko lehian, eta jaisteko arriskutik hiru puntu-ra alden du.

Aurkariak defentsa sendoa erakutsi zuten urnietarren erasoaz zailduz, eta norgehiagoka berdin duz. Denborak aurera egin ahala, gipuzkoarrak erasoago sentitzen hasi ziren pistari, eta partidako lehen aukerak probesten hasi ziren. Atsedena dirira 13 eta 14ko markagailuarekin iritsi ziren. Bigarren zatian, berriz, Gure Auzune taldeak beste jarrera erasokorragoa erakutsi zuen eta partidari aurrera egitea lortu zuen. Partidako azken 10 minutuetan markagailuari bira ematea lortu zuten urnietarrek eta gol bakar bateko aldearekin irabaztea lortu zuten.

Garaipen garrantzitsua Urnietako Quel Abogados taldearentzat
Urnietarrek bigarren postua ziurtatu zuten Urola Fincas Urretxu taldeari irabazi ostean (17-25). Seniorrak, jardunaldi baten faltan, bigarren postua ziurtatu dute. Hirugarren sailkatua lau puntura dutenez, ezinezkoa izango zaie hurbiltzea. Ez zuten bereziki partida ona jokatu azken sailkatuaren aurka. Lehen zatian urnietarrek ez zuten maila erakutsi, defentsa ahula eta erasoan abileziarik gabe jokatu zuten. Bigarren zatian, berriz, Quel Abogados taldeko jokalariek intentsitate handiagoarekin sartu ziren



John Sanchez Urnietako Artola Harategiko jokalaria. UKE



Urnietako Quel Abogados taldea. UKE

pistara eta aurkariak gailentzea lortu zuten. Hurrengo jardunaldian lehenengoa doan Egia Petrategi taldea garaitzen saiatuko dira bigarren postua lortu ostean.

GIZONEZKOEK BI PUNTU GARRANTZITSU LORTU DITUZTE MAILARI EUSTEKO LEHIAN

Esandako guztiarekin, Urnietako senior mailako taldeak denboraldia ondo amaitzen ari dira gora-beherak eduki dituzten arren.

EMAKUMEZKOEK JARDUNALDI BATEN FALTAN BIGARREN POSTUA ZIURTATZEA LORTU DUTE

KARTELDEGIA

FUTBOLA	
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA	
Touring-Euskalduna	3-0
ASTEBURUKO PARTIDA	
16:30 Euskalduna- Mutriku / Ig, 14	
NESKAK, 0. ERREGIONALA	
Urnietako-Lagun Onak	0-0
SAILKAPENA	
1 Arizmendi	59 puntu
10 Urnietako	21 puntu
ERREGIONAL PREFERENTE	
Urnietako-Allerru	1-1
ERREGIONAL 1. MAILA, KOPA	
Euskalduna-Intxurre	3-4
SAILKAPENA	
1 Antigua Luberru	10 puntu
3 Euskalduna	9 puntu
PREFERENTE NESKAK	
Mariño-Euskalduna	0-0
SAILKAPENA	
1 Amaikak Bat	11 puntu
4 Euskalduna	10 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
11:45 Euskalduna- Leintz Aloña / Ig, 15	
JUBENIL MAILA, OHOREZKO	
Real Union-Euskalduna	4-0
SAILKAPENA	
1 Real Union	49 puntu
3 Euskalduna	46 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
18:30 Euskalduna- Orioko / Ig, 14	
JUBENIL MAILA, KOPA	
Amara Berri-Urnietako	1-4
Euskalduna-Ostadar	1-2
ASTEBURUKO PARTIDA	
18:00 Urnietako- Igeltegi / Ig, 14	
KADETEAK, IGOERA FASEA	
Burumendi-Euskalduna	2-2
SAILKAPENA	
1 Lazkao	24 puntu
2 Euskalduna	19 puntu
KADETE, KOPA	
Astigarra-Urnietako	2-2
Urnietako-Billabona	2-1
Usurbil-Euskalduna	2-1
ASTEBURUKO PARTIDA	
16:00 Urnietako-Herrera / Ig, 14	
10:00 Euskalduna-Hernani / Ig, 15	
KADETE NESKAK, KOPA	
Euskalduna-Urnietako	0-1
ASTEBURUKO PARTIDA	
11:45 Urnietako- Ostadar / Ig, 14	
ESKUBALOIA	
EUSKADI, SENIOR MUTILAK	
Gure Auzune-Urnietako	28-29
SAILKAPENA	
1 Corazonistas	35 puntu
11 Urnietako	12 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA	
18:30 Urnietako- Muskiz / Ig, 14	
GIPUZKOA, SENIOR NESKAK	
Urretxu-Urnietako	17-25
SAILKAPENA	
1 Egia	34 puntu
2 Urnietako	28 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
12:00 Urnietako- Egia Petrategi / Ig, 15	
GIPUZKOA, SENIOR MUTILAK	
Leizaran-Txingudi Egaindar	28-29
SAILKAPENA	
1 Saieko	32 puntu
4 Leizaran	22 puntu
JUBENIL MUTILAK GI. TROFEOA	
Urnietako-Egia	25-25
SAILKAPENA	
1 Egia	7 puntu
3 Urnietako	4 puntu
JUBENIL NESKAK GI. TROFEOA	
Pulpo-Leizaran	30-24
SAILKAPENA	
1 Irun	6 puntu
3 Leizaran	4 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
17:30 Leizaran- Irun / Ig, 14	
GIPUZKOA, KADETE MUTILAK	
Donibane-Leizaran Horia	21-15
GIPUZKOA, KADETE NESKAK	
Egia-Leizaran Horia	28-29
SAILKAPENA	
3 Leizaran Horia	10 puntu
6 Urnietako I.M	6 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
12:30 Urnietako I.M- Saieko / Ig, 14	
13:00 Leizaran Horia- Eibar / Ig, 14	
16:00 Leizaran- Tolosa / Ig, 14	
KADETE MUTILAK GI. TROFEOA	
Amenabar-Urnietako	35-27
Pulpo-Leizaran	29-34
ASTEBURUKO PARTIDA	
17:15 Urnietako- Pulpo / Ig, 14	
ARETO FUTBOLA	
LIGA, 1. JARDUNALDIA	
Euskalduna-Eguzki	2-5
SAILKAPENA	
1 Oiartzun	47 puntu
5 Euskalduna	30 puntu
SASKIBALOIA	
SENIOR MAILA	
Eibar-Zurrut	72-68
SAILKAPENA	
1 Aloña Mendi	24 puntu
7 Zurrut S.K.	18 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA	
19:30 Zurrut-Irun / Ig, 14	
JUNIOR MAILA	
Añorga-Ganbara	45-30
KADETE MAILA	
Ganbara-Urkitza	35-60



Txikienak Andoainen bertan aritu ziren. ANDOAINGO

Andoaingo Kaleberria, alebin eta infantil mailako zirkuitua

TXIRRINDULARITZA Txikienak herrian bertan aritu ziren. Kadeteak Beasainen, eta Jubenilak Egian

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Txirrindulari Eskolaren eskutik, negu giroko bi lasterketa jokatu ziren Kaleberrian. Herriko eta Gipuzkoako alebin eta infantil mailakoen lasterketa izan zen, denboraldi hasierakoa. Datorren maiatzaren 1ean lasterketa berria antolatuko dute Andoainen.

Omenaldi ekitaldia

Larunbateko lasterketan Lanbeto Otermin udaltzainari omenaldia eskaini zioten: "Udaltzainburuak erretiroa hartu du eta azken urte hauetan txirrindulari eskolari eskainitako laguntza eskertu nahi izan diogu. Ondo bizi hemendik aurrera". Omenaldia podiumera igorazi zuten.



Jubenil mailakoak Donostia aldean lasterka ibili ziren. ANDOAINGO



Anduva zelaia inguruetan zaletuek babesa eskaini zieten jokalariei. IBONOTEGI

Realaren zaletuak Sevillara begira jarrita daude

FUTBOLA Andoaindik eta Urnietatik joandako hainbat zaletuk argazkiak eta bideoak helarazi zituzten

Erredakzioa ANDOAIN/URNIETA

Errealak uste baino hobeto bideratu zuen final aurreko itzuliko partida, eta sufrimendu gehiegirik gabe Sevillan finala jokatzeko txartela eskuratu du. Ikusmina handia zen Gipuzkoa osoan, eta Andoaindik eta Urnietatik zaletu bat baino gehiago abiatu zen Mirandara. Partida bertatik ikusi zuten, une historikoa bertan biziz. Bat baino gehiago izan zen Aiurrira argazkiak eta bideoak helarazi zituenak. Beraz, haiei guztiei Aiurrikoon eskertza. Zaletuak, orain, finalera begira daude. Alerta giroa uxatuz gero, milaka euskaldun elkartuko dira Sevillan.



Zaletuek azken emaitza jokalariekin batera ospatu zuten. IBONOTEGI



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO
URNIETA

Umetan bezala

Ikaragarria da futbolak mugitzen duena. Realak kemena, ilusioa moldarazteko duen indarra. Ostegun goiz honetan beste hizketa garik ez da kalean, okindegian edo kafetegian. Bart gauean lankide bat, realzale sutsua bera, malkotan sumatu nuen Mirandako partida bukatuta, pozarren Realak egindako balentriarekin. Whatsapp taldeak sutan, Mirandan ziren lagunak pozarren... Umetan, eta gaztetan, Realeko bazkide izan nintzen ni neu ere. Atotxako etxe orratz azpiko bezero, hamabostero.

Zaragozan kale egin nuen, arrazoiaz ez naiz oroitzen. Luis Arconadaren keinu famatu hura telebistan ikusi nuen. Geldiketa dotorea eta eskuin besoa gora. Baina 1988an Madrilen izan nintzen. Joseba Kortajarena lagunarekin batera autobusa hartu Andoainen, eta Madrilera. Galdu egin zuen Realak, Bartzelonaren aurka. Andoaingo apeederora iritsi eta egunkariak "Esta vez no pudo ser", esaten zuen lerro buru handi batek. Ez zait inoiz ahaztuko. Realaren 32 urteko lehortekak beste kirol bide batzuetatik eraman nau. Gasteiz eta Baskonia aldera, ia beti. Miarrizteko errugbi taldera, beste batzuetan. Realaren bidea ere jarraitu dut, noski, baina zaletasuna beste kirol talde batzuekin partekatuta. Azken orduko aldaketarik ez badago, Sevillan izango naiz. Ziur. Tren billeteak eskuan ditut, Sevillako ostatua ere ziurtatua. Sarrerarik lortuko ez dudala jakitun, ez baina bazkide, baina zale taldeen gunean parranda egiteko gogoz, alboan izango ditudan parranda zale petoekin. 32 urte! Belaunaldi oso bat! Sevillakoa Zaragoza eta Madrilgo beteranoei zor zaigun finala da.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

Urnietako
udala

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 12

URNIETA Zuhaitzaren eguna
Haritza landatuko dute Berrasoetan, Udalak eta ikastetxeek sustatutako ekimenean.
10:30 Berrasoeta.

URNIETA Deialdia
Kiroldedia itxiko dute, makineria modulu aurrefabrikatuetara eramateko. Neurria banakako erabiltzaileentzat hartuko da, talde mailako jarduerai eutsiko zaiolako.
10:30 Berrasoeta.

ESKUALDEA Kanpaina
Errigoraren kanpaina berria martxan dago. Nafarroako produktuak erosit, hango euskarari laguntza eskaintzen zaio. Informazioa: Errigora.eus.
Azken eguna.

ANDOAIN Lehiaketa
Inauterietako argazki-lehiaketan parte hartzeko azken eguna da. Basteron aurkeztu behar dira lanak. Sari bakarra: 250 euro.
16:30-19:30 Bastero

ANDOAIN Erakusketa
Itsaso Mendiluzek zuzendutakoa, Andoaingo emakumei buruzkoa.
Ohiko ordutegia Bastero.

URNIETA Dokumentala
"Eskalada jasagarria Gipuzkoan" dokumentala, Zanpatuzen eskutik.
19:00 Sarobe.

OSTIRALA 13

ANDOAIN Diaporama
Amaia Amendarizek eta Jone Perezek Txilera egindako bidaiaren ingurukoa.
18:00 Gazte Lokala.

ANDOAIN Ikuskizuna
"Un grito de mujer" Flamenko ikuskizuna.
20:30 Bastero.

LARUNBATA 14

ANDOAIN Topaketa
Emakumeen pala topaketa. Euriarekin, Arraten.
17:00 Goikoplaza.



Pikoketa eremua. PIRINEOSCONNINOS.ES

URNIETA Eskaladari buruzko dokumentala Saroben

"Eskalada jasagarria Gipuzkoan" dokumentala eskainiko dute Urnietan, ostegun honetan. Adi, Saroben baita –hasiera batean Lekaion iragarri zuten–. Iaz BBK Mendi Film Bizkaia jaialdian eskaini zuten. Saio berean, "Gipuzkoako Eskalada Guneak. Berrekipamendua eta mantenimendua" egitasmoa azalduko da. Zanpatuzek antolatu du, Udalaren laguntzarekin.
Martxoak 12, osteguna. 19:00, Sarobe.

ANDOAIN Kontzertua
Reincidentes eta Dientes de Luna zuzenean. Ondoren, Bad Sound System taldeko Stepi Selektah-k reggae eta dancehall musika. Sarrerak salgai Ernaitzan (Andoain). SAREk antolatutako emanaldia da.
22:30 Gaztetxea. 8 euro.

ASTELEHENA 16

ANDOAIN Tailerra
Batukada feminista ikastaroa, Jabekuntza Eskolaren eskutik. Martxoan bi saio, hilaren 16an eta 30ean.
19:00-21:00 Gazte Lokala.

ASTEARTEA 17

ANDOAIN Tailerra
"Hobeto sentitzeko pausoak ematen" tailerra. Izen-ematea: 667 608 202. Zuen elkartearen eskutik.
17:30-19:30 Urigain.

URNIETA Odol-emaileak
18:30-20:30 Anbulatorio zaharra.

ASTELEHENA 23

ANDOAIN Kafe-tertulia
"La brecha orgasmica", Paola Damonttiren eskutik.
19:00-21:00 Gazte Lokala.

ASTEARTEA 24

ANDOAIN Tailerra
"Hobeto sentitzeko pausoak ematen". Izen-ematea: 667 608 202.
17:30-19:30 Urigain.

ASTEAZKENA 25

ANDOAIN Tailerra
Mindfulness ikastaroa, Jabekuntza Eskolaren eskutik.
17:30-19:30 Urigain.

IGANDEA 29

URNIETA Haur ikuskizuna
"Aioko".
17:30 Sarobe. 3 euro.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Hasta que la boda nos separe
Larunbata, 14.
19:30, 22:00.
Igandea, 15.
19:30.

Astelehena, 16.
19:30, 22:00.

Lur eta amets
Lar, 21; Ig, 22:
17:00.

Parasitos
Lar, 21; Ig, 22; Astl,
23.

Fidelio (Opera)
Asteartea, 17. 20:15.

URNIETA

SAROBE

Asto erregea
Igandea, 15. 17:00.

SINOPSISIA



Asto erregea
Herrialdea: Pakistan. **Urtea:** 2018. **Generoa:** Animazioa. **Zuzendaria:** Aziz Jindani. **Prezioa:** 4 euro. **Hizkuntza:** Euskara.

Mangu astoaren abenturak

Lehoi Erregea, oihaneko burua, erretiroa hartzekotan da. Mangu asto apala, zoriontsu da bere garbitzaile bizimoduarekin, baina

ustekabeen herritarren hautagai bihurtu eta Lehoi Erregearen legezko oinordekoari, aurre egin beharko dio.

IKUSKIZUNA



Frozen ikuskizuna Basteron

Onbeat konpainiak "Frozen, el Origen del Hielo" film ezagunean oinarrituriko ikuskizuna eskainiko du, Basteroko auditorioan. Aretoa alokatu dutenez, ez da Udal programazioan sartzen eta ikuskizunari buruzko promozioa kanpotik egiten ari dira.

Madriden denbora luzez eskaini eta gero, larunbat honetan eguerdiko 12:00tan saioa eskainiko dute.

Frozen eta Frozen 2 filmeetako abestiak tartekatuko dituzte. Azken sarrerak Kutxabank bidez erosteko aukera dago.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Julen Gurrutxaga Aizpurua
8 urte martxoaren 15ean! Erreala gora ta gora beti!! Maialen, Iker, Ibai, Imanol, Maitane ta Ander.



ANDOAIN
Ibai Gurrutxaga Amondarain
Pasa den martxoaren 8an bete zituen 19 urte! Ikaslearen bizitza hoberena da!!! Biba zu!



ANDOAIN
Urtzi Martxoaren
20an 11 urte egingo dituzu. Bixik ere laster bi urte. Zorionak berari ere, gure etxea alaitzen duelako!!!



ANDOAIN
Iker Miguez Belón
Ikerrek 8 urte beteko ditu datorren martxoaren 26an. Ondo ospatu zure eguna. Muxu handi bat, etxeokak.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

ODOL EMAILEAK

Martxoak 17, asteartea

18:30-20:30. URNIETA
Anbulatorio zaharra.



GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 14 eta igandea 15
ZATARAIN: Elizondo, 6.
943 59 08 02 Andoain.

URNIETA

Larunbata 14 eta igandea 15
CASTILLA-LARBURU: Urbietta, 7.
943 552 941 Hernani.

GAUEZ

URRUTIA-MARTIN: Etxeberria, 1.
Florida. 943 557 738 Hernani.

Jarrera desegokiak salatu ditu Andoaingo Udalak

Aurreko egunetan Urigain ondoko arrapala mekanikoa hondatu zen. Antza, nahita eraginda

Erredakzioa ANDOAIN

Andoainen, berriki, hondatuta agertu dira Bazkardoko eskilara mekanikok eta Urigain ondoko arrapala. Urigain ondokoan heldulekuetako zinta apurtuta agertu zen. Antza, nahita eraginda.

Konponketaren gastua 3.968 eurokoa izango dela aurreikusi dute. Udalak jokabide zataarrak saihesteko deia luzatu du. Bazkardokoan, bestalde, rodamentuak matxuratu eta konpontzeko egunak behar izan dira.



Urigain ondoko heldulekuen zinta apurtuta ageri da. AIURRI

Urnietako Udalaren gaitzespena

Larunbat gauean hainbat auto hondatu zituztela salatu du Urnietako Udalak, ohar bidez: "Guztira, hamazortzi auto erasotu zituzten kristalak eta atzerako ispiluak apurtuz, eta gurpilak zulatuz. Gainera, bi edukiontzi erre zituzten, bata Santa Leokadia kalean eta bestea Azkorte kalean". Udalak ekintza "onartezin

eta ulertezin" horiek deitoratu ditu, eta errespetuaren eta gizalegearen aldeko deia luzatu du: "Urnietako Udalak bere gaitzespenik irmoena adierazi nahi du".

Asteburuko gertaerak ikerketapean direla iragarri dute, gertatutakoa argitzen saiatzeko.

Goenaga apaiza gogoratzeko liburuxka prestatu dute

Datorren astelehenean, martxoak 16, Mikel Goenaga apaiza hil zeneko laugarren urteurrena beteko da

Erredakzioa ANDOAIN

Aski ezaguna izan zen Andoainen, eta haren jardunak arrasto sakona utzi zuen hainbatengan. Bere bizibide ereduagariak herriar askoren oroimenean

jarraitzen du, urteak igaro arren. Lekukotza ugari bildu dituzte ingurukoek eta adiskideek, eta horiekin guztiekin liburuxka osatu eta argitaratu dute. Liburuxka eskuratu nahi duenak,

Ernaitza eta Stop liburudendetan aukera izango du. Halaber, datorren igandean (martxoak 15) Sorabila auzoko elizaren atarian eskuratu izango da ere, eguerdiko 12:00tatik aurrera. Telefonoz ere eskatu liteke liburuxka, 627 441 603 telefono zenbakira hots eginda.

Gizarte mailan lan handia egin zuen Goenagak, bere bizitza osoan zehar. Ekintzaile eta eragile aritu zen, bereziki gizartearen baztertuta zeudenen alde.



Goenaga Askagintza elkarteko kideekin ageri da Urigainen, 1996an. AIURRI



Telegram erabiltzailea al zara?
"Aiurri Andoain" kanala bila ezazu, eta jarrai gaitzazu

Andoaingo albisteen jarraipena errazteko aukera.

ALBISTE BERRI ON, IRAKURLE!

www.aiurri.eus | twitter | facebook | instagram | telegram



Aldaketa Urnietako erabiltzaileentzat

KIROLA Ostegunean hasita, kiroldegiko erabiltzaileentzat itxi egingo dute Urnietako Kiroldegia. Erabiltzaile horiei Andoaingo, Lasarte-Oriako eta Usurbilgo kirol instalakuntzetan aritzeko aukera badutela gogorarazi diete

Erredakzioa URNIETA

Kiroldegia berritzeko lanak has-tearekin batera ateak itxi zaiz-kie erabiltzaileei. Baina lanek iraun bitartean kirolzaleek eu-ren jarduerekin jarraitzeko au-keraz izango dute. Beste kokapen batean, hori bai. Berrasoetako aparkalekuan ipiniko dituzten modulu aurrefabrikatueta, zehazki. Egokitze lanetan ari dira, eta bertara eramango dute ikastaroak eta saioak eskaintze-ko materiala. Aurreikuspenen arabera, moduluak martxoaren amaieran zabaldu nahiko lituz-kete. Bitartean, Udalak diren eragozpenengatik barkamena eskatu du eta, aldi berean, uler-



Eraberritze lanetan ari dira Urnietan. UDALA

kor izatea erantsi du. Moduluak egokituta, Urnietako erabiltzaileek kiroldegi berria egin arte normaltasunez jarraitu ahal izango dute euren kirol jarduna.

Egun hauetarako alternatiba, eskualdean dago. Eskualdeko kiroldegietan, zehazki. Udalak ohar bidez adierazi zuenez, "le-kualdaketa iraun bitartean Andoaingo, Lasarte-Oriako eta Usurbilgo kirol instalazioak erabiltzea gomendatzen zaie bazkideei, Buruntzaldeako hi-tzarmenaren barruan daudelako eta doan sar daitezkeelako".

Kluben jarduera ez da etengo

Kiroldegia itxita egongo den arren, kirol federatuko eta Es-kola Kiroleko lehiaketak ez dira geldituko, futbol zelaia zein ki-rol anitzeko pista erabiltzen jarraitu ahal izango baitira.

**MODULUAK EGOKITU
BITARTE ESKUALDEKO
KIROLDEGIEN AUKERA
GOGORARAZI DIETE
ERABILTZAILEEI**

Eskualdeko kiroldegia, aukeran

Norbanako erabiltzaileek eskualdeko kiroldegien erabilera egin dezakete

ANDOAIN

Allurralde Kiroldegia

943 00 83 28.

allurralde@andoain.eus

Sorabilla auzoa 231,
20140 Andoain.

LASARTE-ORIA

Maialen Chourraut Kiroldegia

943 37 61 82.

kirolak@lasarte-oria.eus

Beko kale, 3,

20160 Lasarte-Oria.

USURBIL

Oiardo Kiroldegia

943 37 24 98.

kirola@usurbil.eus

Gernika Ibilbidea, 9,

20170 Usurbil.

KORONABIRUSA

ZER EGIN DEZAKET NIRE BURUA BABESTEKO?



1 ESKUAK SARRITAN GARBITU.



2 EZTUL EDO DOMINISTIKU EGITEAN, ESTALI AHOA ETA SUDURRA UKONDOAREKIN EDO ZAPI BATEKIN.

BOTA ZAPIA BEREHALA ETA GARBITU ESKUAK ALKOHOL-OINARRIA DUEN ESKUETAKO DESINFEKTATZAILE BATEKIN EDO UR ETA XABOIAREKIN.



3 MANTENDU METRO BATEKO TARTEA, GUTXIENEZ, EZTUL EDO DOMINISTIKU EGITEN DUTEN EDO SUKARRA DUTEN PERTSONENGANDIK.



4 EZ UKITU BEGIAK, SUDURRA ETA AHOA.



5 ETXEAN ETA LEKU PUBLIKOETAN ESKUEKIN UKITZEN DIREN GAINAZALEN GARBIKETA AREAGOTU.



OSAKIDETZA ETA OSASUN SAILAREN WEB ORRIETAN



Osakidetza

